# ESOFAGOKO MANOMETRIA

# MANOMETRIA ESOFAGICA

## *Zer egiten da proba honetan?*

Teknikarik onena da esofagoaren mugikortasun-arazoak identifikatzeko.

Esofagoan dauden mugimendua eta presioa aztertzen dira, sudurretik sartzen den zunda malgu baten bidez.

## *Nola prestatuko naiz proba egiteko?*

Proba egin aurreko 12 orduetan, baraurik eta erre gabe egon behar duzu.

Medikamentu batzuek esofagoaren mugikortasunari eragiten diote (nitratoak, kaltzio-kanalen blokeatzaileak, beherakoaren aurkakoak, libragarriak, analgesikoak, lasaigarriak, eragile prozinetikoak eta hipertentsioaren aurkakoak); hori dela-eta ez dira hartu behar proba egin baino 24 ordu lehenagotik.

Proba eskatu duen medikuak adieraziko dizu zuk hartzen dituzun medikamentuen artean horrelakorik ba ote dagoen.

## *Non egingo didate proba?*

Ospitaleko 3. solairuko B aldean dagoen “Urodinamika eta Manometria” izeneko proba funtzionaletako gelan. Alde horretako sarreran eseri eta itxaron, deitu arte.

Emaitza proba eskatu duen medikuari bidaliko diote.

## *Nola egingo didate proba?*

Eserita zaudela, zunda mehe eta malgu bat sartuko dizute sudurretik, urdailaren ahoraino. Zunda eztarritik pasatzen denean, molestiaren bat sentituko duzu, eta goragalea ere izan dezakezu, baina segundo batzuk besterik ez dira izango. Ondoren, etzan egingo zara miaketak irauten duen bitartean. Oso proba eramangarria denez gero, ez da beharrezkoa medikamenturik edo lasaigarririk hartzea.

Probak 20 minutu inguru irauten du.

## *Zer egin behar dut probaren ondoren?*

Miaketa egin eta gero, bizimodu normala egin dezakezu (jan, lanera joan, etab.). Ez duzu aparteko zainketarik behar.

## *¿En qué consiste la prueba?*

Es la mejor técnica para identificar los trastornos de la motilidad esofágica.

Consiste en estudiar el movimiento y la presión existentes en el esófago, mediante una sonda flexible que se introduce por la nariz.

## *¿Cómo debo prepararme para la prueba?*

Deberá permanecer en ayunas y sin fumar durante las 12 h. anteriores a la prueba.

Ciertos medicamentos (nitratos, bloqueadores de los canales del calcio, antidiarréicos, laxantes, analgésicos, sedantes, agentes procinéticos y antihipertensivos), alteran la motilidad del esófago y deben ser suspendidos 24 h. antes de la prueba.

El médico que solicita la prueba le indicará si entre los medicamentos que usted toma habitualmente, se encuentra alguno de ellos.

## *¿Dónde me realizarán la prueba?*

En la Sala de Pruebas Funcionales “Urodinámica y Manometría” situada en la 3ª pl.- Area B del Hospital. Podrá esperar sentado a la entrada de dicha área, donde se le llamará.

El resultado de la prueba se enviará al médico que la solicitó.

## *¿Cómo me realizarán la prueba?*

Estando sentado se le introducirá una sonda delgada y flexible a través de la nariz, hasta el inicio del estómago. El paso de la sonda por la garganta es algo molesto y puede provocarle nauseas que desaparecerán tras unos segundos. A continuación, se tumbará durante el tiempo que dure la exploración. No precisa la administración de medicamentos ni sedantes, dada su buena tolerancia.

La duración aproximada de la prueba es de unos 20 minutos.

## *¿Qué debo hacer después de la prueba?*

Después de la exploración podrá hacer su vida normal (comer, acudir al trabajo, etc). No necesita ningún cuidado especial.